

"la Caixa" Gizarte Ekintzak Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzarekin bat egin du

- "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari nagusi Jaume Girók, Donostiako alkate Eneko Goiak, eta Euskal Herriko eta Kantabriako CaixaBankeko lurralde zuzendariak gaur eskainitako prentsaurrekoan 2016ko urte honetan Donostian kulturaren esparruan elkarlanean jarduteko erabakiaren berri eman dute, Europako Kultur Hiriburutzarekin bat eginez.
- Hasteko, "la Caixa" Banku Fundazioa akordio batera iritsi da Donostia 2016 Fundazioarekin Inklusio eta Norberaren Garapenerako jarduera ildoan jasotako bi proiektutan elkarlanean jarduteko. *Dance2gether* eta *Corale* ekintzez ari gara.
- Era berean, erakunde horrek bere ekimenak antolatuko ditu Hiriburutzaren esparruan, esate baterako, abenduan Kurasaaleko Auditoriumean izango den *Mesias* kontzertu parte hartzailea.
- "la Caixa" k kultur ekintzak areagotuko dituzenez, udan Donostiara iritsiko da aire zabalean egingo den Henry Mooreren eskulturen erakusketa bikaina.
- Programazioa aurkeztean, honako hau adierazi du "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari Jaume Girók: «Kulturaren aurreko ikuspegia partekatzen dugu, ezagutza multzo baten transmisio hutsetik askoz ere harago doan ikuspegia dugu; funtsezko tresna da kultura, norbera garatzeko eta gizarteratzea ahalbidetzeko».
- Eneko Goia alkateak eskertu egin du "la Caixa" Gizarte Ekintzaren ekarpena Donostia Europako Hiriburua den urte honetan, izan ere, jarduera horiek "zalantzarik gabe leku garrantzitsua hartuko dute donostiarron eta bisitatuko gaituztenen kultur agendan".

Prentsarako txostena

Donostia, 2016ko apirilak 8.- "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari nagusi Jaume Girók, Donostiako alkate Eneko Goiak, Donostia 2016ko zuzendari orokor Pablo Berastegui eta Euskal Herriko eta Kantabriako CaixaBankeko lurralde zuzendari Juan Pedro Badiolak gaur eskainitako prentsaurrekoan 2016ko urte honetan Donostian kulturaren esparruan elkarlanean jarduteko erabakiaren berri eman dute, Europako Kultur Hiriburutzarekin bat ginez.

Hedabideen aurreko aurkezpena egin baino lehen, Donostiako alkateak, "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari nagusiak eta Euskal Herriko eta Kantabriako CaixaBankeko lurralde zuzendariak laneko gosaria egin dute. Bertan izan da, era berean, 2016ko Hiriburutza, Kultura, Euskara eta Hezkuntza zinegotzi-ordezkarri Miren Azkarate.

"la Caixa" Banku Fundazioak parte hartu nahi du aurten Donostian izango den Europako Kultur Hiriburuaren ospakizun garrantzitsuan, eta horrexegatik iritsi da akordio batera Donostia 2016 Fundazioarekin, Hiriburutzako babeslea izateko. Horrenbestez, "la Caixa" k lagundu egingo du Hiriburutzako Inklusio eta Norberaren garapenerako lan ildoan jasotako proiektu batzuetan.

Programazioa aurkeztean, "la Caixa" Banku Fundazioko zuzendari Jaume Girók agerian utzi du erakundearen lotura Hiriburutzarekin: «zentzuzkoa da eta normala da hala izatea, kulturak izan behar duenaren aurrean ikuspegi bat eta bera baitugu». «Ezagutza multzo baten transmisio hutsetik askoz ere harago doa kultura –erantsi du–, eta kultura funtsezko tresna bat da, norbera garatzeko eta gizarteratzea ahalbidetzeko».



Eneko Goia alkateak, bere aldetik, eskertu egin du "la Caixa" Gizarte Ekintzaren ekarpena Donostia Europako Hiriburua den urte honetan. Donostiako alkatearen iritziz, Fundazioak proposatzen dituen jarduerak "maila eta kalitate handikoak dira, eta beraz, aberastu egiten dute gure hiriak 2016. urtean zehar eskainiko duen proposamena". Hiriburutzako programazioari egiten zaion ekarpenaz gain, kontzertu parte hartzailea berreskuratu izana nabarmendu du, eta bereziki, Henry Mooreren eskulturen erakusketa, alkatearen aburuz "zalantzarik gabe leku garrantzitsua hartuko baitute bi ekintza horiek donostiarron eta bisitatuko

Prentsarako txostena

gaituztenen kultur agendan".


Zehazki, bi jarduerak jasoko dute "la Caixa"ren laguntza. **Dance2gether** da bata, dantzaren bidez elkarrekin bizitzeko proiektua. Hainbat ikastetxetan burutuko da, eta 2016ko irailaren hondarrean koreografia masibo batek emango dio amaiera.

Corale da bigarren jarduera. Euskadin oso errotuta dagoen abesbatzen tradizioa da protagonista. Proiektu honetan aipatu tradizioaren eta kultur, folklore eta heziketa balioaren arteko loturaz hausnartzen duten kontzertuak, tailerrak eta erakusketa bat eskainiko dira.

"la Caixa" Gizarte Ekintzak Hiriburutzan izango duen esku hartzean, erakundearen jarduera baten antolakuntza ere jasota dago. Hiriburutzako *Elkarrizketak* programaren atala izango da, inguruko kultur eragileekin aliantzak egiteko eta beren balioei lotutako proiektu zehatzetan laguntza emateko programaren atala.

Mesias kontzertu parte hartzaileaz ari gara. Badira hogeit hamar urte baino gehiago "la Caixa" Gizarte Ekintzak kontzertu hori antolatzen duela, eta atsedean luze baten ostean, berriro ere itzuliko da Donostiara. "la Caixa"k 2007an, 2008an eta 2009an antolatu zuen ekimen bera gure hirian, eta oraingoan Ensemble Matheus orkestrak jardungo du Jean-Christophe Spinosi zuzendari frantsesaren batutari jarraiki.

Esperientzia bat eta bakarra da; izan ere, batera interpretatuko dute Händelen *Mesias*, garai orotako errepertorioko obra enblematiko eta esanguratsuenetako bat. Amets bat da abesbatzen musika maite dutenentzat, aukera izango baitute oratorio handi horretako ahots zatiak nazioartean oso ospetsuak diren orkestrekin, bakarlariekin eta zuzendariekin batera abesteko Kursaalako Auditoriumean bezalako ingurune ezin egokiagoan. Abenduaren 13an, asteartean, izango da *Mesias* obraren kontzertu parte hartzailea.



Hiriburutzarekin zuzeneko lotura duen jarduera horrez gain, "la Caixa" Gizarte Ekintzak, udan, **Henry Mooreren eskultura handien** erakusketa bat antolatuko du aire zabalean, Donostian, **Artea kalean** entitatearen programaren testuinguruan.

Prentsarako txostena

Proiektu horren bidez, aire zabaleko museo bihurtu nahi du "la Caixa" Gizarte Ekintzak Donostiako hiria, gisa horretan eskultura monumentalari beste zentzu bat emateko eta, bide batez, nazioartean ospe handia duen artista horren lanak herritarrei erakusteko.

"la Caixa"ren konpromisoa gizartearen beharrianen aurrean

Kulturari halako zabalkundea emateaz gain, Banku Fundazioak gure inguruneko erronka handiei, bereziki gizartearen esparruko erronkei, erantzuteko helburu estrategikoak dauzka.

Estatu mailan, "la Caixa" Banku Fundazioak sendotu egin du bere jarduera 2015. urtean, gizarte hobe eta bidezkoago bat eraikitzeke xedearekin, eta aukerak eman dizkie beharrian handienak dauzkaten pertsoneri. Iaz, Gizarte Ekintzaren bidez, 46.209 ekimenetan parte hartutako 9,9 milioi onuraduni eman zien arreta. **2016. urteari begira, 500 milioi euroko aurrekontua du erakundeak**, hots, aurreko zortzi urteetako aurrekontu bera, gizarte ekintzetan inbertitu duen Estatuko fundazio garrantzitsuena izaten jarraitzeko eta Europako eta munduko garrantzitsuenetako bat. Aurten ere, lehentasuna izango dute gizarte programek; batez ere, haurren pobreziaren aurka borrokatzeko eta enplegua sustatzeko, horietan baitu helburu nagusi.

Erakundeak gizarte programa asko bideratzen ditu Donostian, Gipuzkoan eta Euskadin, gizarte erakundeen eta herri administrazioen eskutik. Horien artean aipagarria da gaixotasun aurreratuak dauzkaten arreta integrala emateko programa, Matia Fundazioak koordinatutako sei talde profesionalekin garatzen dena. Era berean, talde ahulenen laneratzea sustatzen du Donostian Incorpora programaren bidez eta Gurutze Gorria, Gureak eta Sartu Gipuzkoa elkarten laguntzarekin. Kolore Guztiak eta Ikertze Kultur Elkarteak elkarteek erakundearen laguntza jaso dute haurren pobreziaren aurka borrokatzeko proiektuak sustatzeko eta, artetik abiatuz, gizarte bera hobetzeko.


Azkenik, eta Donostiako Udalaren laguntzari esker, adineko pertsonen zahartze aktiboa sustatzen du hiriko bi zentrotan: Amarako Gizarte Zentroan eta Idiakez Gizarte Zentroan.

"la Caixa" Gizarte Ekintzako Komunikazio Arloa


Juan José Ortiz – 659 233 506 / jjortiz@lacaixa.es

Josué García – 93 404 61 51 / 638 146 330 / jgarcial@fundaciolacaixa.es

Prensa Areto Multimedia - <http://prensa.lacaixa.es/obrasocial/>

 [@FundlaCaixa](https://twitter.com/FundlaCaixa)

Dance2gether



Elkarrekin dantza egiteko gai bagara, elkarrekin bizi gaitzke

Talde dantzaren bidez, haurtzaroan hartzen diren rolen arteko desberdintasunak zalantzan jartzen saiatzen da esperimentu honen bidez, kide izateko sentimendua sustatzen saiatzen da eta lankidetzak bultzatzen. Profesionalei zuzendutako talde dantzaren inguruko prestakuntza saioek abiaraziko dute proiektua, gero iritsiko zaie txanda ikastetxeei. Bost egunez, ikasleek ordu guztiak emango dizkiote dantzari eta, Unescoren balio garrantzitsuenetako bati jarraiki, hau da, "egiten ikasten da" premisari jarraiki, koreografia bat sortuko dute ikasleek. Donostiako Larramendi ikastetxean filmatutako *Five Days to Dance* film arrakastatsuen bidez ezagutarazi da proiektu hau.

Eragileak: Lurraldeko ikastetxeak, De Loopers, Dantzagunea. **Hasiera:** 2015.
Amaiera: 2016.

Corale



Iragana-oraina-etorkizuna

Hiriburutzaren lurraldean oso-oso errotuta dagoen tradizioetako baten, abesbatzaren, eta kultur nortasunaren, folklorearen eta heziketa balioaren arteko loturari buruzko hausnarketa sustatzeko hiru jarduerak osatuko dute Corale.

Okendo Kultur Etxean egokitutako erakusketa baten bidez bideratuko da. Erakusketa horrek Erensoinka Kultur Enbaxadaren esperientzia gogoraraziko du, eta Erensoinkaren Itzalak izenburupeko abesbatza ikuskizunen emanaldi bat eskainiko du.

Era berean, abesbatzen transmititzeko gaitasuna nabarmentzeko xedez, bi tailer antolatuko dira: bat sehaska kanten eta magaleko kanten ondarearen inguruan, eta beste bat gizarteratzearen inguruan, Gautenaren (Gipuzkoako Autismo Elkartea) laguntzarekin.

Eragileak: Phillippe Regnier, Sarako Ondare Kulturala Elkartea, Hego Lapurdiko Hirigunea, Inesfera, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa, Eresbil, Sarako Udala. **Laguntzaileak:** Okendo Kultur Etxea, Donostia Kultura, Gautena. **Tokia:** Gipuzkoa, Lapurdi. **Hasiera:** 2016ko uztaila. **Amaiera:** 2016ko urria

Mesias kontzertu parte hartzailea



Amets bat, abesbatzen musika maite dutenentzat

"la Caixa" Gizarte Ekintzak Donostiako Udalaren laguntzarekin antolatuta, esperientzia aberasgarria izango da *Mesias* kontzertu parte hartzailea; gonbit egiten zaie abesbatzen musikazaleei eta musikaren alorreko ezagutzak dauzkaten amets bat betetzeko, oratorio handi horretako zati batzuk nazioartean ospe handia duten zuzendariarekin, bakarlariekin eta orkestrarekin batean abesteko ametsa betetzeko, alegia.

Jean-Christophe Spinosi Maisu zuzendariaren aginduetara, Ensemble Matheus orkestrak eta bakarlari ezagun batzuek Kursaalako Auditoriumeko jarlekuetatik jardungo dute hamarnaka abeslari zaleekin batean, emanaldia prestatzeko lan gaitza egin eta gero. Horiek guztiek abesbatzarako musikaren aurreko interes berezia duten herritarrak irudikatu dituen mosaiko handi bat eratuko dute. *Mesias* obraren bertsio berri bat baino gehiago da emaitza: Händelen oratorio handiak aldarrikatzen duen itxaropen eta herrien arteko gogaidetasun mezua batera abestea da kontua.

Antolatzailea: "la Caixa" Gizarte Ekintza, Donostiako Udalaren laguntzarekin.

Zuzendaria: Jean-Christophe Spinosi. **Tokia:** Kursaalako Auditoriuma. **Data:** 2016ko abenduak 13.

Henry Moore. Artea kalean



Donostia hartuko dute maisu ingelesaren eskultura monumentalek

Eskultura modernoan maisu handienetakoa dugu Henry Moore. Bigarren Mundu Gerraren osteko hamarraldietan planeta osoan egin zen ospetsu mundu osoko kanpo espazioetan, guneko zibiko zein publikoetan, jarri zituen brontzezko monumentu handiei esker. *Henry Moore* erakusketa *Artea kalean* programaren atala da. "la Caixa" Gizarte Ekintzak, programa horren bidez, artea hurbilarazi nahi die herritarrei museoan eta erakusketa aretoen ohiko esparruetatik kanpora.

Donostiako Udalaren eta Henry Moore Fundazioaren laguntzarekin antolatutako erakusketa hau osatzen duten brontzezko irudi handiak aipatu eskultoreak egin zituen bere ibilbidearen gailurrean zenean, 1960 eta 1982 urte bitartean. Sei eskultura hauek Mooreren obraren motibo nagusien lagin adierazgarriak dira: irudi makurtuek eta "ama eta seme-alabari" buruzko gaiak liluratzen dute egilea; giza irudiaren eta landa zein hiriko paisaiaren arteko harremanaren esplorazioak; berezkoa denaren eta abstraktuaren arteko tentsioak; eta objektu naturalak eskultura formetara eraldatzeak.

Antolatzailea: "la Caixa" Gizarte Ekintza, Henry Moore Foundation Fundazioaren eta Donostiako Udalaren laguntzarekin. **Komisarioa:** Sebastiano Barassi, Henry Moore Foundation Fundazioaren Bildumen burua. **Data:** 2016ko ekainaren 21etik irailaren 4ra arte.